

ALUSTITZA'TAR JULIAN

Alustitza'tar Julian, Aita prantziskotar gaztea, Gabirin 1913'an jaioa. Izlaritzn maixu dan añaixe, euskal-olerkaritzan finfiña agertzen zaigu, zernaitarako ikusmen aundikoa, eta euskaltasun guzizkoa. Nunai billatzen daki poesi-muñã, ta baitare poliki neurtiltez adierazten. Oraintsu arte Gazteleerrietan bizia ta sermoilari asko ibillia, antxe asma zizkizun olerkiok eta beste asko, danak beretzakoxe bakarrik eta bere pozgarrirako sortnak, berezkoa dun olerkiminak eraginda. S. M.

Iturrian

Iturri xamurra!
Atzo kantari egin zenidan agurra,
Nere pozaren ixilla
nondik zenekizun?
—Biotz-pilpilla
nik entzun!...

Iturri maitea!
Gaurkoz, osterã, negarrez duzu gorasarrea.
Nere barruko kez karen nekea
zuri nork esan?..
—Begitan dizut antzeman!...

1941. Valladolid.

Konbentuko sagarrondoa

Moja-konbentu bat zan
patxada osoan.
Pareta zar gañetik,
baratzaz barruan,
sagarrondo aundi bat
loretan zegoan.

Erleak "xurru-murrux"
eren erlauntzira...
Ene animak iges
konbentu-kabira.
Mojatxoak leiatsu
antxen ari dira.

Burutik txuri eta
beltzez gorputz dana,
moja bakoitza zenun
sagarrondo bana.
Ta ezpañetik zerien
erlearen lana.

Aizea zinkurinka
leio-zirriztuan...
Badabil iskanbilla
kaleen barruan:
negarra plaza-buruan...
Ez-da atsegin munduan!...

Erleak lanean ta
mojak errezoan...
"Xurru-murru" goxoan,
bake-abaroan,
begiak laga nindun
loaren altzoan.

Loak artu bezela
ametsetan asi:
Moja-jantzian nizun
gorputza ikusi:
beltzez soñeko dana,
buru-gaindik txuri,
ta besoen azpian
(iruditen neri)
ego meak ernetzen
ote ziran ari...

Azkenekoz orratik
esna nintzanean,
begik igurtzi nituen
ikusi naiean...

Moja-konbentu bat zan
patxada osoan.
Pareta zar gañetik,
baratzaz barruan,
sagarrondo aundi bat
loratan zegoan...

1939. Toro'n (Zamoran).

Amonaren errosarioa

Amonatxo bat banun
(Jaungoiko altsua!)
Aren irriparrea!,
aren errezoa!
Zerutio ote zun jaso?...

Goiz-erdira artu du
patata-saskia.
Amonak gerta bear
gure bazkaria...
Alere ez dizu utziko
bere eskaria,
ez-ta arpegiko argia...

Mai-gañean aurrena
txotx-pillo bat bildu.
(Larogetik gora izan
ta oroimena galdu!)
Bere errezoetan
txotxen laguntza bear du.

Sutondoan lapikok
irakin diraki...
Patatak sartu ditu
poliki-poliki...
Axalak mantalera,
ta eragin txotxari...,
ta "Agur-Mari", ta "Agur-Mari"...

Etxaguko iturrik
etorri goxoa...
Amonak ari dizu
errosarioa...
Aren irriparrea!,
aren errezoa!
Zerutio ote zun jaso?!

1942. Valladolid'en.

Zorion-etxea

Zeru-ertzean sutan mendien burua.
Eperrak eman dizu goizeko doñua.
Nere anima ere etxetik badoa.

Eguzki-galdatan txigortzen alea.
Eperrak bildu dizu bere txita-pilla.
Nere biotzak, orde, zorion-gosea.

Larrañean luzatzen gauaren ixilla.
Eperrak bildu dizu bere txit-pilla.
Barrura sartu adi, biotz txoratilla!
Jainkoa etxean, ta kanpotik abilla?...

1942. Valladolid'en.

Gure labesua

Xoxoak goizero saio-legea.
Egun bakoitzak dizu neke berea...
Astelenak gurean ogi-erretzea.

Amonatxoak egin zun elizako lana.
Urrena olloai eman die jana...
Gure labesurako gertu dago dana.

Elaatzean pertzari lurriña dario.
Amonak oreari erain-daragio.
Inguruan umea pozez zorabie.

Orain artu ore a ta oian estali.
Izarape goxoan umetxoak nagi...
Orea, ordea, epelean jaiki.

Gero kutxilloakin ebaki zatia,
amonak legunkiro osatu ogia,
umeak txotx batekin xulatu mamia.

Etxaguko labea txinparta betean.
Isatsa gertu dago mai baten gañean...
Aurki sartuko ogiak labe epelean.

Lizarrean txoriak begia ernai...
Illobatxo gazteenak ogi berria nai.
Amona, bitartean, ogiaren zai.

Arratsalde erdiz usai iztilla...
Umea trikitika ogi berri billa.
Saskian estalita aor ogi-pilla!
Zapi txurian, berriz, axal eta mutur,
amonak neretzako egin dun opilla.

1941. Valladolid.

Nere soroa

Iturriak badaki kañabera nun den!
Galeperrak ere bai txuloa non duen...
Soro-puxketatxo bat nik ere banuen.

Igaz (txantxangorriak kantatu garaia)
biotzean poza ta eskuan azia,
soro denean nizun erein garia.

Laister azaldu zuan lurretik mokoia,
lenengo belartxo bat, urrengo lastoa.
Aren berdea eta aren ezoa!
Zerutik aldatua ote zen soroa!?!...

Bañan mundu xar onen biotza kaxkarra.
Mami-errea duzu basoko txillarra...
Arrosak eraman ezin otalora xarra...

Zeruaren urdiñak, inbiri makurrez,
soroaren berdea eraman eziñez,
dena ondatu zidan goiz batez izotzez.

Alabearrez Jaunak euzkia sortu zun.
Gariak berriz ere burua altxa zigun
Ta azitzen ari zaigu bai gau ta bai egun.

Martin-xoxoak jo zun Udalen-doñua.
Gari-tartean, berriz, galeper-soñua...
Lastoak dagoneko badizu burua.

Uztail-erdia. Eguzkiak parre.
Zillar genun soroa orain, berriz, urre.
Alea gizentzen ta zabaltzen muturre.

Atarian itaiak irrika agoa.
Biar egurdirako lurrean soroa.
Mandiora alea, sapaira lastoa.

Errotako arria alearen zai...
Etxeko umetxoak labesua nai...
Laister degu labean opillaren usai...

Galsoño laztana!
Irakatsi ederra ik eman dekana.
Galeperrai osa diek txulo bana...
Etxeko umeai urterako jana...

1940. Valladolid.

